

**PAQUITA ANSA HAUR ESKOLA
2024-2025 IKASTURTEA**

FAMILIENDAKO ARGIBIDE OROKORRA

[Martxoaren 6ko 68/2024 Ebazpenean](#) aurreikusitako prozedura 2023/2024 ikasturtean ikastetxean matrikulatuta ez dauden haurrei aplikatuko zaie. .

Ikaspostua eska dezakete: 2022an, 2023an edo 2024an jaiotako haurren gurasoek edo legezko ordezkariak, baldin eta jaioteguna ez bada 2024ko maiatzaren 10aren ondokoa (2024-2025 ikasturtea hasi baino 16 aste lehenago).

Ikastetxean sartuko dira jaio eta 16 aste igaro ondoren.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Aurreikuspenen arabera, ikasturtea 2024ko abuztuaren 29an hasiko da. Haur Eskolako zuzendaritzak haur bakoitzaren hasiera egun zehatza jakinaraziko die familiei, haurren egokitzapen aldiaren arabera.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 7:30etik 16:00etara.

ESKABIDEAK

Eskanideak aurkezteko epea: 2024ko apirilaren 10etik 24ra

A) AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Gurasoen edo legezko ordezkarien **NAN**aren, **AIZ**aren, **pasaportearen** edo **agiri baliokidearen** fotokopia.
- Familia-liburuaren** fotokopia edo familia-unitatearen lotura egiaztatzen duen edozein **agiri, zuzenbidean baliozkoa bada**.
- Haurren jaioteguna onarpen-prozesua amaitu ondoren aurreikusia badago, aurreikusitako erditze data egiaztatzen duen **txosten medikoa** beharko da. Haurra onartzeko, haren jaiotze-data egiaztatu beharko da. Horretarako, 2024ko maiatzaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dute familia-liburuaren fotokopia edo lotura egiaztatzen duen eta zuzenbidean baliozkoa den edozein agiri.
- Adopzio-prozesuan edo familia-harreran dauden haurren kasuan, **egoera hori egiaztatzen duen ebazpenaren** kopia eta haurren jaiotza-data egiaztatzen duen agiriaren kopia.
- Banantze edo dibortzio kasuan, **banantze edo dibortzioa legez egiaztatzen duen agiri** edo **epai judizialaren** fotokopia aurkeztu beharko da.
- Zizur Nagusiko udalerrian helbidea duela frogatzeko, Zizur Nagusiko Udalak 2024ko urtarrilaren 26tik aurrera emandako **bizikidetza ziurtagiria** edo **-agiria** aurkeztu beharko da. Agiri horretan, bai haurra bai gutxienez guraso edo legezko ordezkarietako bat 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen Zizur Nagusian erroldatuta daudela jaso beharko da. Jaio ez diren haurren kasuan, bizikidetza-ziurtagiri edo agiri hori guraso edo legezko ordezkari bati buruzkoa izanen da, gutxienez.
- Aurreko puntuan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten langileen kasuan eta lantokia Zizur Nagusian badago, aurkeztu beharko da:
 - Administrazio publikoen langileen kasuan, **kasuan kasuko langile burutzak emandako ziurtagiria**. Hartan, interesdunaren datu pertsonalak eta bere lana garatzen duen helbideari buruzkoak jaso beharko dira.
 - Besteren konturako langileen kasua, **enpresa-ziurtagiria**. Hartan, interesdunaren datu pertsonalak eta bere lana garatzen duen helbideari buruzkoak jasoko dira, lan-kontratuaren kopia batekin batera.
- Gurasoen edo legezko ordezkarien lan egoera:
 - Norberaren konturako langile autonomoen kasuan, honako hauek aurkeztu beharko dira:
 - Gizarte Segurantzaren edo dagokion mutualitatean** alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiri ofiziala.
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan** alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiri. Indarrean dagoen araudiaren arabera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egoteko legezko betebeharririk ez badago, kasuan kasuko udalak emandako **irekiera lizentziaren** kopia bat beharko da, edo **jardueren aldez aurreko jakinarazpena**, eta, bi kasuetan, interesdunaren **erantzukizunpeko adierazpen bat**, lizentziaren indarraldiari buruzkoa.
 - Besteren konturako langile autonomoak:
 - Gizarte Segurantzaren edo dagokion mutualitatean** alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiri ofiziala.
 - Zer enpresetarako lan egiten den, **haren ziurtagiria**, interesdunaren datu pertsonalak jasotzen dituen.
 - Besteren konturako langileen kasuan, **Gizarte Segurantzaren edo dagokion mutualitatean** alta emanda daudela egiaztatzen duen agiri ofiziala aurkeztu beharko dute.

Zortzigarren puntu honetan aipatutako agiriak 2024ko martxoaren 26tik 2024ko apirilaren 24ra bitartean emandakoak izan beharko dira, irekiera lizentziaren edo jardueren aldez aurreko jakinarazpenaren kopiari dagokionez izan ezik.

9. **3 urtetik beherako semea edo alaba zaintzeko eszedentzian** egonez gero, lan egoera aktibotzat hartuko bada, **eszedentziaren jakinarazpena** aurkeztu beharko du, 8. puntuari adierazitako dokumentazioaz gain, bai eta **adierazpen** bat ere, adierazita lanean hasteko aurreikusitako data ez dela izanen 2024ko urriaren 13aren ondokoa. Behin interesduna lanpostura itzuli ondoren, lanera itzuli dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.
10. Gurasoetako batek edo legezko ordezkariaren batek Paquita Ansa Haur Eskolan lan egiten badu, ikastetxearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, langilearen datu pertsonalak eta betetzen duen lanpostuari buruzkoak zehaztuta.
11. Gurasoen edo legezko ordezkarien egoera akademikoa.
Ikasketa arautuetan ari bada lehentasunezko dedikazioarekin (1), matrikularen, egutegiaren eta ikasturtearen ordutegiaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko du.
12. Hala badagokio, gurasoetako batek edo legezko ordezkariaren batek ezintasun iraunkorrerako pentsioa maila **absolutuan edo baliaezintasun handian** aitortua duela egiaztatzen duen dokumentazioa.
13. **Familia-unitatearen (2)** per capita errenta
Errenta mailak justifikatzeko dokumentazioa pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena da, familia unitateko kide konputagarri guztien 2022ko zerga-ekitaldiari dagokiona. Aitortpena egin beharrik ez badago, hori egiaztatzen duen dokumentazio ofiziala eta/edo beste errenta edo diru-sarrera batzuk jasotzen direla justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, edo, azken buruan, horien zinpeko aitortpena eta/edo Zizur Nagusiko Udalak urte horretako familiaren diru-sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak.
14. Haurrak desgaitasuna badu, eta/edo gurasoren batek edo legezko ordezkariaren batek, edo anai-arrebaren batek, % 33ko edo hortik gorako desgaitasun maila aitortua eta egiaztatua badu, agiri hauetako baten kopia aurkeztu beharko da:
- Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMERSO) edo dagokion autonomia erkidegoko organo eskudunak emandako ebazpena, ziurtagiria edo txartela.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (GSIN) ebazpena, ezintasun iraunkor osoagatik, ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioduna dela adierazten duena.
- Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren edo Defentsa Ministerioaren ebazpena, lanerako ezintasun iraunkoragatik edo lanerako ezigaitasunagatik erretiro pentsioa esleitzen duena.
- Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak emandako txartela, desgaitasun maila aitortzen duena, identifikatzeko baliozko dokumentu batekin batera.
- Desgaitasun hori egiaztatzeko beste edozein ziurtagiri ofizial.
15. Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktimak izateagatik, egoera hori frogatzen duen agiri ofizialaren kopia.
16. Familia ugariaren kasuan, hori frogatzen duen titulu ofizialaren kopia.
17. Familia gurasobakarraren kasuan, hori frogatzen duen titulu ofizialaren kopia.
18. Haurra erditze anizkoitzean jaioa bada, inguruabar hori egiaztatzen duen agiri ofizialaren kopia.

B) ONARPEN IRIZPIDEEN BALORAZIOA

1. Lehentasunezko irizpideak

- 1.1. Paquita Ansa Haur Eskolan dagoeneko anai-arrebak matrikulatuta badaude eta 2024-2025 ikasturterako eskola horretan eskolatuta jarraitzen badute, kopurua edozein izanik ere, **3 puntu** emango dira
- 1.2. Gurasoen edo legezko ordezkarien bizilekuaren edo lantokiaren hurbiltasuna:
- 1.2.1. Bizilekuaren hurbiltasunagatik, **A) ataleko 6. puntuaren arabera: AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA - 10 puntu.**
- 1.2.2. Lantokiaren hurbiltasunagatik, **atal bereko 7. puntuari xedatutakoaren arabera - 2 puntu.**
- 1.3. Per capita errenta tarteak:
- 1.3.1. Per capita errenta 7.938 €-koa edo txikiagoa - **3 puntu.**
- 1.3.2. 7.938,01 €-tik 11.907 €-ra arteko per capita errenta - **2 puntu.**
- 1.3.3. 11.907,01 €-tik 15.876 €-ra arteko per capita errenta - **1 puntu.**
- 1.3.4. 15.876 €-tik gorako per capita errenta - **0 puntu.**
- 1.4. Haurrak desgaitasuna izatea, edo haren guraso, legezko ordezkari edo anai edo arrebaren batek:
- 1.4.1. Ikaspostua eskatzen duen haurrak desgaitasuna badu - **2 puntu.**
- 1.4.2. Ikaspostua eskatzen duen haurraren gurasoek edo legezko ordezkariak edo anai-arrebek desgaitasuna badute - **0,5 puntu.**
- 1.5. Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktimak izatea, inguruabar bat edo biak gertatzen direnean - **1 puntu.**
- 1.6. Guraso batek edo biek edo legezko ordezkariak Paquita Ansa ikastetxean lan egiten badute - **0,8 puntu.**
- 1.7. Familia ugariko kide izatea - **0,8 puntu.**

1.8. Ikaspostua eskatzen duen haurra familia-harreran egotea - **0,8 puntu.**

1.9. Gurasobakarreko familia izatea - **0,8 puntu.**

1.10. Erditze anizkoitzean jaioa izatea - **0,8 puntu.**

2. **Irizpide osagarria**

2.1. Familia orokorren kasuan, bi gurasoak edo legezko ordezkariak honako egoeretako batean badaude: lanean, Gizarte Segurantzaren alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan - **1 puntu.**

2.2. Guraso bakarreko familien kasuan edo guraso bakarreko familia izan gabe zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoaren kasuan honako egoeretako batean badago: lanean, Gizarte Segurantzaren alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan - **1 puntu.**

C) HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK BALORATZEKO EGIAZTAGIRIAK

Balorazio hori justifikatzen duten txostenak

D) OHARRAK ETA DATUEN EGIAZTAPENA

- Alegatzen den egoerari buruzko dokumentazioa aurkezten ez bada, zero puntuazioa emanen da onarpen baremoan dagokion atalean.
- Egiaztatzen bada eskaeran edo erantsitako agiritan adierazitako datuak okerrak edo faltsuak direla, dagokion puntuazioa aldatuko da, eta, kasua bada, emandako ikaspostua kenduko zaio.
- Hautapen batzordeak eska dezake zuzen daitezela interesdunek aurkeztutako dokumentazioak dituen akats formalak.

E) EBAZPEN FASEAK

Eskabideak baloratzeko, hautapen batzordeak, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, **B) ONARPEN IRIZPIDEEN BALORAZIOA** ataleko **Lehentasunezko irizpideak** izeneko 1. puntuan ezarritako baremoa aplikatuko du.

Lehentasunezko irizpideak baloratzearen ondorioz berdinketarik badago, hura hausteko irizpide hauek aplikatuko dira, hurrenkera honetan, behar bezala egiaztatutik:

- Anai-arrebaren bat Paquita Ansa ikastetxean matrikulatuta egotea.
- Gurasoen edo legezko ordezkarien bizilekua edo lantokia hurbil izatearen apartatua puntuazio handiagoa.
- Familia-unitatearen per capita errentaren apartatua puntuazio handiagoa.
- Haurrak edota haren guraso, legezko ordezkari edo anai-arrebaren batek desgaitasuna izateari buruzko apartatua puntuazio handiagoa.
- Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea.
- Gurasoek edo legezko ordezkariak Paquita Ansa ikastetxean lan egitea.
- Legez familia ugariko edo familia gurasobakarreko kide izatea.
- Haurra familia-harrerako egoeran egotea.
- Haurra erditze anizkoitzean jaioa izatea.

Berdinketa hausteko irizpide horiek ordena horretan aplikatuko dira hurrenez hurren, harik eta berdinketa hautsi arte.

Hala ere berdinketa hausten ez bada, **ONARPEN IRIZPIDEEN BALORAZIOA** izeneko **B)** idatz-zatian ezarritako **Irizpide Osagarria** erabiliko da berdinketa hausteko

irizpide osagarria erabilia ere berdinketa mantentzen bada, Hezkuntza Departamentuak 2024ko martxoaren 15ean egingen duen zozketa publikoaren bidez ebaztuko da.

F) ZERRENDEN ARGITALPENA ETA ERREKLAMAZIOEN AURKEZPENA

Behin-behineko zerrenden argitalpena: 2024ko maiatzaren 28a

Onartuen behin-behineko zerrenda eta itxaron zerrenda Zizur Nagusiko Udalean, "Paquita Ansa Haur Eskola" ikastetxean, Gizarte Zerbitzuan eta Udalaren webgunean (www.zizurmayer.es/eu/) argitaratuko dira.

Erreklamazioen aurkezpena: 2024ko maiatzaren 29tik ekainaren 3ra

Erreklamazioak ekainaren 3ra arte aurkezten ahalko dira **Zizur Nagusiko Udalean (Erreniega parkea, z/g) edo Gizarte Zerbitzuan (Emakumearen plaza, 2)**, Hautapen Batzordeari zuzenduta, behin-behineko zerrendetan jasotako puntuazioa berrikusteko arrazoiak argudiatuz. Inola ere ez da onartuko eskabideak aurkezteko epean aurkeztu ez den dokumentazio berririk, akatsak zuzentzeko aurkezten denean izan ezik, baldin eta hasieran aurkeztutako dokumentazioa falta bada.

Behin betiko zerrenden argitalpena: 2024ko ekainaren 5a

Onartutakoen behin betiko zerrenda eta itxaron zerrenda Zizur Nagusiko Udalean, "Paquita Ansa Haur Eskola" ikastetxean, Gizarte Zerbitzuan eta Udalaren webgunean (www.zizurmayer.es/eu/) argitaratuko dira.

Ez dira inola ere banan-banan jakinaraziko behin-behineko zerrenden eta behin betiko zerrenden emaitzak.

Matrikulazioa: ekainaren 6tik 12ra.

G) KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- (1) **Ikasketa arautuak** dira titulu akademiko ofizialak eskuratzera bideratuta daudenak: DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, unibertsitateko titulazioak eta abar. Ikasketei **lehentasunezko dedikazioa** ematen zaiela joko da baldin eta interesduna matrikulatuta badago ikasturte oso bat osatzen duten kreditu edo orduen %80an gutxienez, ikasturtean zehar eta kasuko ikasketa planaren arabera.

(2) **Per Capita errenta**

- Onarpenari begira, familia unitatearen kontzeptua da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 71. artikulua arautzen duena.

"71. artikulua. Familia unitatearen kontzeptua.

1. Zerga honi dagokionez, ondokoak dira familia unitateak:

a) Legez banandurik ez dauden ezkontideek eta adingabeko seme-alabek osatutakoa (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, judizialki ezgaituta eta guraso-aginte luzatu edo birgaituaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.

b) Berariazko legeen arabera bikote egonkor bateko kideek eta adingabeko seme-alabek osatutakoa (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, judizialki ezgaituta eta guraso-aginte luzatu edo birgaituaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.

c) Legezko banantzearen kasuetan edo, ezkontzaren bidezko loturarik edo bikote egonkorrik ez dagoenean, aita edo ama eta batarekin edo bestearekin bizi diren seme-alaba guztiak osatzen dutena, aurreko idatz-zatietan aipatzen diren betekizunak betetzen badituzte.

2. Ezin da aldi berean bi familia unitatetako kidea izan.

3. Familia unitateko kideak zehazteko, urte bakoitzeko abenduaren 31n dagoen egoera aintzat hartuko da, familia unitateko kideren bat urtean hil ezean; izan ere, kasu horretan familia unitateko gainerako kideek zergak, hildakoaren errentak barne, batera ordaintzea aukeratu ahal izango dute.

Aukera hori ez da bidezkoa izango, ezkontideetako bat hil, eta urtea amaitu baino lehen alarguna berriro ezkontzen denean"

- Onarpen baremoaren ondorioetarako per capita errenta kalkulatzeko, familia unitatearen errenta izanen da errenta aitorpeneko likidazio oinarriaren edo oinarrien guttizkoa. Familia unitatearen per capita errenta honela kalkulatu da: 2022. urteko zerga-ekitaldiari dagokion guttizko likidazio oinarria zati familia unitatearen kide kopurua 2022ko abenduaren 31n (aitortzailea, ezkontidea edo bikotekide egonkorra eta kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak).

- 2024. urteko lanbide arteko gutxieneko soldata urtean 15.876 eurokoa da